31 / Iarunbata **20:15** San Migel plazan

PSYCHO CLOWN IKUSKIZUNA (ZO ZONGO)

Presta zaitez perkusio dardartia, piroteknia liluragarria eta pailazo antzerkia fusionatzen dituen ikuskizun baterako, inoiz ikusi ez duzun bezala. Elementu bakoitzak emozioz eta harriduraz betetako bidaia batera eramango zaitu. Ikuskizun honek perkusioa, piroteknia eta antzerkia nahasten ditu.

LUDOTEKA ETA GAZTELEKUA

Ludoteka eta gaztelekuko ikasturte berria urriaren 13an hasiko da.
Izen-ematea **www.irura.eus** web orritik egin beharko da.

2027KO EGUTEGIRAKO ARGAZKI-LEHIAKETA

2027ko egutegia osatzeko argazki-lehiaketarako gaia **´KIROLA IRURAN´** izango da.

Urtero bezala, adin guztietako herritarrek parte hartu ahal izango dute lehiaketan. Aukeratutako argazki-egileek 30€ko erosketa-bonoa irabaziko dute. Lehiaketaren oinarriak **www.irura.eus** webgunean aurkituko dituzue. **Animatu!**

(Irura Bizi elkarteak antolatuta)

TAMAINA HANDIKO HONDAKINAK

Edukiontzien ondoan utzi daitezke **hileko 1. eta 3. ostiral bezperan**, 20:00etatik 22:00etara.
Garbigunera ere eraman daitezke. Etxetresna elektriko berria erosiz gero, zaharra dendan ere utz daiteke.
Urriak 1
Urriak 15

IRURA ESKURA APLIKAZIOA

Gure herriaren berri uneoro eskura eta modu erosoan izatea ahalbidetzen du. Oso erraza da aplikazioa mugikorrean instalatzea. Android sistemako mugikorretan Play Store-n sartu behar da, Iphone-etan, APP Storean. Bi kasuetan, Irura hitza idatzi bilatzailean.
Aplikazioan klik egin eta deskargatu.

NOTA
Toda la información en castellano en **www.irura.eus** o en la **oficina de cultura**

euskara

Irurako udala

kultur mahaia

castellano

irura AISIALDIRAKO 2026 GiDA

URRIA

EMAKUME ARTISAUEN V. AZOKA

URRIAK 25
11:00-14:00
IRURAKO PLAZAN

7 / asteazkena **11:00** San Migel plazan

TIPI TAPA: IRURAKO ADINEKOAK SASOIKO EGOTEKO EGITASMOA

Adinekoak sasoian egoteko aukera bikaina.
65 urtetik gorako pertsonek ibilbide bat egiten dute ariketa fisikoa bultzatu eta elkarren arteko harremanak sustatzeko. Ibilbidea hamaiketako batekin amaitzen da.
Nahi duenak 10 minutu lehenago luzatze ariketak egiteko aukera izango du.

· +65 urte

16 / ostirala **18:00** Udaletxeko ganbaran

OMBUAREN ITZALA FILMAREN EMANALDIA ETA SOLASALDIA

113minutu irauten duen filma, Pello Mari Otaño zizurkildar bertsolari-poeta ospetsua gogora dakarkiguna. Auzolanean ekoitzia eta Argentinan eta Euskal herriko hainbat lekutan grabatua, 2024ko azaroan estrenatua. Proiekzio hasieran aurkezpen labur bat egingo du Patxi Bisquert zuzendariak eta filma amaitu ondoren solasalditxo bat izaten du ikusleekin.

· Euskaraz
· Nerabeak eta helduak







17 / larunbata **09:00**

Gazte Alaiak elkartearen ate aurrean

MENDI IBILALDIA ETA HAMAIKETAKOA

Ibilbidea: G.A. Elkartea, Ariztiko Iturria, Loatzoko gaina, Alustizako Gurutze-bidea, G.A. Elkartea. Izenemateak irteera aurretik ate aurrean, banaka, hamaiketakoan parte hartzeko ibilbideko puntu guztietan zigilua jarri behar da. Izenematea irteeran egingo da.

· Euskaraz
· Publiko guztia

(50.Urteurrena GAZTE ALAIAK bazkideen batzordeak antolatuta)

21 / asteazkena **17:30** Udaletxeko ganbaran

II. ZAINTZA TOPAKETA

Irura Zainduz
— ZAINTZAREN SARE KOMUNITARIOA —

Iruran nahi dugun zaintza eredua elkarrekin irudikatu eta eraikitzeko, zaintzaren arloan esperientzia eta praktika inspiratzaileak ezagutzeko mintegia antolatuko da. Bertan, beste herri eta lurralde batzuetan garatutako egitasmo eta proiektu berritzaileak aurkeztuko dira, hausnarketarako eta etorkizunerako inspirazio iturri izan daitezen.

· Euskaraz
· Publiko guztia

Zaintza zerbitzua egongo da, aurrez izena ematea beharrezkoa da.

25 / igandea **11:00** San Migel plazan

EMAKUME ARTISAUEN V. AZOKA

Bosgarrenez emakume artisauen azoka ospatuko da.

· Publiko guztia

(Irura Moretuz emakume taldeak antolatuta)

26 / astelehena **16:00** Herri eskolako aretoan

ODOL EMATEAK

ODOLA EMAN
BIZITZA EMAN

Lagundu biziari, eman odola!
Urriaren 26 goizean 943007884 telefonora deitu eta hitzordua eskatu beharko da.

(Irurako Odol Emaileen Elkarteak antolatuta)

31 / larunbata **18:00** San Migel plazan

ARIMEN GAUA

- 18:00-19:00 Photocall-a. (Datu pertsonalen babesa dela eta, norbera arduratuko da argazkiak ateratzeaz) Portikoan.
- 18:30 Gaztaina jatea. San Migel plazan.
- 19:00-20:00 "Xanduli Manduli eman goxkiak guri" Goxoki bilketa. Herrian zehar.
- 19:45 Zezen suzkoa. San Migel plazan.
- 20:15 PSYCHO CLOWN ikuskizuna. San Migel plazan.
- 21:30 Barrikotea. San Migel plazan.

OHARRA: Ikastolan, ludotekan eta gaztelekuan ekintza ezberdinak egingo dira Arimen Gauaren inguruan.

· Euskaraz
· Publiko guztia

(Irura Bizi eta Kultur mahaiak antolatuta)